Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

2246

105/2010 EBAZPENA, martxoaren 11koa, Gurutzetako Ospitaleko zuzendari kudeatzailearena, Gurutzetako Ospitaleko Giza Baliabideetako zuzendariorde lanpostua betetzeko Luis Villoldo Ortega jauna izendatzeko dena.

Aztertu dugu Gurutzetako Ospitaleko Giza Baliabideetako zuzendariorde lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Gurutzetako Ospitaleko zuzendari kudeatzailearen azaroaren 23ko 5105/2009 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2010eko otsailaren 18ko EHAAn (33. zenbakia).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten agiriak aztertu dira, bai eta euren baldintza profesionalak curriculum vitaen jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Luis Villoldo Ortega jauna deialdiko lanposturako aproposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori dela eta, Kudeaketa Zuzendaritza honek hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Luis Villoldo Ortega jauna Gurutzetako Ospitaleko Giza Baliabideetako zuzendariorde izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2010eko martxoaren 3tik aurrera izango ditu ekonomia- eta administrazio-ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Gurutzeta-Barakaldo, 2010eko martxoaren 11.

Zuzendari gerentea,
GREGORIO ACHUTEGUI BASAGOITI.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

2246

RESOLUCIÓN 105/2010, de 11 de marzo, del Director Gerente del Hospital Cruces, por la que se nombra a D. Luis Villoldo Ortega para desempeñar el puesto de Subdirector de Recursos Humanos del Hospital Cruces.

Vista la convocatoria para cubrir el puesto de Sub-Director de Recursos Humanos del Hospital Cruces, publicada en el BOPV n.º 33, de 18 de febrero de 2010, mediante Resolución 5105/2009, de 23 de noviembre de 2009, del Director Gerente del Hospital Cruces.

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, ha sido estudiada la documentación presentada por los aspirantes al desempeño del puesto de que se trata, habiéndose valorado sus condiciones profesionales conforme a los méritos aportados en el «Curriculum Vitae».

A la vista de la documentación presentada, D. Luis Villoldo Ortega se adecua al perfil del puesto convocado y posee la cualificación idónea para el desempeño del mismo.

En virtud de cuanto antecede, esta Dirección Gerencia,

RESUELVE:

Primero.– Nombrar a D. Luis Villoldo Ortega, Subdirector de Recursos Humanos del Hospital Cruces.

Segundo.– El presente nombramiento surtirá efectos económicos y administrativos desde el día 3 de marzo de 2010.

Tercero.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Director General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV.

En Cruces-Barakaldo, a 11 de marzo de 2010.

El Director Gerente,
GREGORIO ACHUTEGUI BASAGOITI.